

**HKEE-REN PRENTSA OHARRA, HAUTESKUNDEETAKO KONTABILITATEEI BURUZKO IRIZPENENA, 2020KO APIRILAREN 5ERAKO AURREIKUSITAKO HAUTESKUNDE-PROZESUARI ETA 2020KO UZTAILAREN 12AN EGINDAKO EUSKO LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDEEI DAGOKIENA.**

---

Joan den abenduaren 16an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak aho batez onartu zituen 2020ko apirilaren 5erako aurreikusitako hauteskunde-prozesuari (COVID-19ak eragindako osasun-krisiagatik bertan behera utzitakoa) eta 2020ko uztailaren 12an egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei zegozkien kontabilitateen irizpenak.

Lanaren mamia hauteskundeetan aulkia eskuratu zuten edota hauteskundeetako dirulaguntzaren aurrerakina eskatu zuten alderdi politikoen hauteskunde-kontuak egiaztatzea izan da, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeek ekainaren 15eko 5/1990 Legea betez.

Irizpen biek ondorioztatu dute hauteskunde horietara aurkeztutako alderdi politikoez zuzentasunez bete dutela indarreko legeria hauteskunde-gastu eta finantzaketa gaitan; halaber, ez dituzte gastuetarako finkatutako guztizko mugak gainditu eta hauteskunde-kontabilitateak fiskalizatzeko Legeak agindutako epearen barruan aurkeztu dituzte.

Irizpenak, gainera, alderdi politiko bakoitzak zorpetutako eta ordaintzeko dituen dirulaguntzak jasotzen ditu, justifikatu dituzten gastuen eta ezargarria den legeriak finkatutako mugen arabera.

Bestetara, Txostenak adierazi du udal hauteskundeek eta talde politikoen kontabilitatearen fiskalizazio lana Kontuen Epaitegiari dagokiola. Ezin egiaztatu izan da legezko debekuak edo mugak betetzen ez zituzten kontabilitate horietan jasotako hauteskunde hauetako gastuak sartu izana edo diru-sarrerak alderdi politikoen kontabilitatearen bidez bideratu izana.